



**SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ, JAURLARITZAREN
IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARREKIKO HARREMANETARAKO
ZUZENDARIA**

**Nik
EGIAZTATUA:**

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015eko uztailaren 27an egindako bileraren aktak, besteak beste, honako erabaki hau jaso zuen:

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEK OINARRIZKO LANBIDE
HEZIKETAKO HEZIKETA ZIKLOAK EMATEKO ESKUMENA ESKUORDETZEKO
ERABAKIAREN PROPOSAMENA. (ESP.: 2015/00585) (A/20150179)**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak du irakaskuntzaren gaineko eskumena –irismen, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan–, orobat aintzat hartuta Konstituzioko 27. artikulua eta hura garatzen duten lege organikoak, Konstituzioko 149.1.30.a artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenak, eta haiek betetzeko eta bermatzeko beharrezko goi-ikuskapena ere.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egiaztatu du hala 1/1990 Lege Organikotik eratorritako lanbide-hastapeneko programei nola 2/2006 Lege Organikoan (LOE) jasota dauden geroztiko lanbide-trebakuntzako programei autonomia-erkidegoko araudian emandako orientazioak oso emaitza onuragarriak lortu dituela ikasleei dagokienez. Izan ere, halaxe lortu ahal izan da, lanbide-trebakuntzaz gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatu-titulua izatea, edo lanbide-heziketarako sarbidea, bide horietatik erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko aukerarekin, laneratze hobe ahalbidetu dien lanbide-trebakuntza iristeko.

Programa horiek arrakasta nabarmenarekin eraman dira aurrera, ikastetxe-sare zabal baten bidez. Ikastetxe horien artean, udal-kopuru handi baten titulartasunekoak daude. Udal-ikastetxe horiek dagoeneko badituzte instalazioak, bai eta irakaskuntza horiek egin behar dituzten adingabeekin lan egiten esperientzia handia duten irakasleak ere. Horrek gomendagarri egiten du eskaintza horri bere erreferentziako tokian eustea eta sektorean lan egiten duten profesionalen ezaguera eta trebakuntza ere baliatzea.

Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aldaketa sartu zuen hezkuntza-kalitatea hobetzeari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoko artikulua bakarreko hirugarren idatz-zatiak. Aldaketa horren bidez, oinarrizko lanbide-heziketako zikloak sortu ziren hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren barruan. Orobat, hasierako lanbide-trebakuntzako programak ezabatu ziren. Eta horrek haustura eragin zuen hezkuntzaren arloan, ordu arte arrakastaz artatzen ari baitzen ikasketak garaiz aurretik uzteko arriskuan ziren ikasleak.

2014ko otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuko xedapen iragankorretatik lehenengoan, hastapeneko lanbide-trebakuntzako programak eman dituzten toki-korporazioei eman zaie, besteak beste, 2014/2015 eta 2015/2016 ikasturteetan oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-ziklo berriak emateko baimena, lehendik eman dituzten programen lanbide-profilekin bat datozen tituluetan. Horrek esan nahi du 2016/2017 ikasturtetik aurrera dagoeneko ezingo dutela orain arte egin duten hezkuntza-jarduera egin.



Hala ere, Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 27. artikuluko 3. paragrafoan jasota dago autonomia-erkidegoek udalei eskumenak eskuorde diezazkietela, horretarako irizpide homogeneous jarraituta.

Era berean, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoko 8.3. artikuluan jasota dago autonomia-erkidegoek udalei eskuorde diezazkietela hezkuntza-zerbitzu jakin batzuk kudeatzeko eskumenak.

Horregatik guztiarengatik, hala eskatzen duten udalei eskuorde dakieke, 1986ko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko (toki-araubidearen gaian indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onartzen duen dekretua) 68.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, Euskal Autonomia Erkidego honen eskumenak gauzatzea, Estatutuko 16. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Horrenbestez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak, gaia aztertu ondoren, hau onartu du:

ERABAKIA

«LEHENA»: Eskumena eskuordetzearen xedea.

1. Erabaki honen eranskinean adierazi diren udalei oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloak emateko eskumena gauzatzea eskuordetzen zaie.

2. Eskumen-eskuordetze horretan sartuta dago lanbide-heziketako irakaspenak ematen dituzten ikastetxe publikoei esleitutako eskumenak gauzatzea, erabaki honen eranskinean ageri diren oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloetarako, ikastaroetarako eta eskola-unitateetarako.

Eskuordetze hori eraginkorra izan dadin, udal interesdunak onartu beharko du, eta baldintza etenarazlea izango da Ikastetxeen Zuzendaritzak alde aurretik baimentzea edo betekizunak bete direla egiaztatzea.

3. Erabaki honek aipagai duen ikastetxean ematen diren oinarrizko lanbide-heziketako irakaskuntzak doakoak izango dira, eta haietarako indarrean den araudian zehaztutakoarekin bat etorriko dira betiere.

4. Eskumen eskuordetua erantzukizun osoz garatuko da, betiere toki-erakundearen autoantolakuntzako ahalmena erresetatuz, eta hezkuntza-administrazioari dagozkion zuzendaritza- eta kontrol-ahalmenak errespetatuz.

5. Eranskinean adierazitako ziklo, ikastaro edo unitate zehatzak aldatu ahalko dituzte udalek, baldin ondorengo baldintzak betetzen badira:

- a. Hala egokituz gero, eman beharreko ziklo berriak oinarrizko lanbide-heziketakoak izatea, eta udalerrian beste ezein ikastetxe publikotan ematen ez diren lanbide-familietakoak izatea.
- b. Ziklo, ikastaro edo unitate berriek eragindako gastua ez gehitzea eranskinean eskuordetzerako adierazitako guttizkoa.
- c. Ikastetxeen Zuzendaritzak betekizunak betetzea baimentzea edo egiaztatzea, dagokien zerbitzuek irakaspenak emateko galdatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta gero egingo da.

BIGARRENA: Transferitzen diren langileak eta baliabide materialak.

Eskuordetutako eskumenak gauzatzeko, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ez du langilerik eta baliabide materialik jarriko.

HIRUGARRENA: Finantzaketa eta justifikazioa.

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, baimena eman eta gero urtero, udal bakoitzari finantzatuko dio eskuordetutako zerbitzua egitearen kostu osoa, baldin ikastaro eta espezialitate bakoitzean ikasle-taldea eratzen bada, irakaskuntza publikorako ezarritako irizpide eta orduekin bat etorruta.

Eskuordetutako zerbitzuaren benetako kostua balioztatzeko, arau hauek aplikatuko dira:

- Irakasleen gastuak
- Irakasle ez diren langileen gastuak
- Funtzionamendu- eta mantentze-gastuak
- Inbertsio errealak birjartzea

2. 2015eko aurrekontu-ekitaldirako, baimendutako talde eta heziketa-zikloetarako eranskinean ageri den kopurua emango dio sailak udal bakoitzari.

3. Eskumen-eskuordetzea indarrean den ondoz ondoko ekitaldietarako, sailak udal bakoitzari transferituko dio autonomia-erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-horniduraren zenbatekoa.

4. Eskuordetutako eskumenak gauzatzean, udalek inoiz ere ezingo dute hezkuntza-arloko eskumena duen sailetik transferitutako urteko aurrekontu-horniduratik gorako gastu-konpromisorik edo bestelako ekonomia-betebeharririk hartu.

5. Dagozkion kopuruak lau hilean behin ordainduko dira, aurrez, irailean, urtarrilean eta maiatzean. Ordainketa bakoitza egiteko, ikastetxeak udaleko idazkariaren edo kontu-hartzailearen egiaztagiria aurkeztu beharko du. Egiaztagirian, aurreko lauhilekoari zegokion kopurua eman zen helbururako erabili zela justifikatuko da. Agiri horiek aztertuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak dagokion ordainketa tramitatuko du, justifikazioak bat baldin badatoz aurreikusi eta erabaki zen finantzaketarekin.

6. Ikastetxearen funtzionamendu-gastuak ikasturtea bukatu eta gero justifikatuko dira, urte bakoitzeko urriaren 31 baino lehen. Administrazioako organo eskumendunak horretarako ezarritako prozedurari jarraituz justifikatuko dira gastuak, egindako gastu guztien zerrenda ziurtatuarekin batera.

7. Finantza daitezkeen gastuak honela banatuko dira: irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak; mantentze- eta funtzionamendu-gastuak; eta inbertsio errealak birjartzea (IEB). Gastu horiek eskuordetzea eman den oinarritzko lanbide-heziketako heziketa-zikloari egotz dakizkiokeen gastuak direla jotzen da.

Irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak.

Atal honetan egotzi ahalko dira irakasleen soldatei eta gizarte-kostuei dagozkien kostuak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileei dagozkienak, ikastaroa eman duten profesionalen izenpetutako



ordainagiriekin, fakturekin edo nominekin ordainagiriekin batera, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioen eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako (PFEZ) atxikipenen diru-sarrerari dagozkion frogagiriekin ere.

Funtzionamendu- eta mantentze-gastuak.

Atal honetan egotzi ahalko dira ondorengo hauek justifikatzen dituzten fakturak:

- Irakaskuntzako gastu espezifikoak: material suntsikorraren kontsumoa, material didaktikoarena, laborategiko eta lantegietako material eta energiarena, ebaluazio-materialarena.
- Askotariko hornidura- eta zerbitzu-gastuak: garbiketa, berokuntza eta hozketa, ura, gasa, argindarra, kontserbazio eta konponketa arruntak eta higiezineta bestelako gastuak.
- Administrazio-gastuak: material inbentariaezinaren kontsumoa; telefono-, posta- eta telegrafo-komunikazioak; bulegoko altzarien kontserbazioa eta konponketa; erreprografia; eta beste administrazio-gastu batzuk.

Inbertsio errealak birjartzea IEB.

Atal honetan egotzi ahalko dira material inbentariagarria (eskola-materiala eta ekipamendu didaktikoa) konpontzeko gastuak justifikatzeko fakturak.

Orobat, ikasturtea bukatzean, zuzendaritza-taldeak oroitidazki batean bilduko ditu ziklo bakoitzari buruz haren irakasle-taldeak egindako oroitidazkietako datuak. Zuzendaritza-taldearen oroitidazkian, hauek sartuko dira: ikastetxearen datuak eta titularra; ematen diren oinarritzko lanbide-heziketako zikloak eta ezaugarriak; irakasle-kopurua; heziketa-ziklo bakoitzerako programatutako eta egiaz emandako ikastorduen datuei buruzko informazioa; heziketan parte hartzen duten ikasleen segimenduko adierazleak, zikloa utzi duten ikasleenak, eta gaingitu duten ikasleenak; bai eta gastu-sarreraren balantze ekonomikoa ere.

Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak eskumena eskuordetu zaion erakundeari eskatu ahalko dio egoki deritzon beste edozein justifikazio-agiri, ikastaroa egin dela egiaztatzeko.

Heziketa-zikloko/ikastaroko gastu finantzagarriak eta heziketa-zikloko eta ikastaroko jaso beharreko kopuruak ondoko koadroan zehaztuta daude.



HEZIKETA-ZIKLOA	Irakasle/gela ratioa = zuzeneko irakaskuntzako orduak/irakasleko ikastorduak	IRAKASLEAK	IRAKASLE EZ DIREN LANGILEAK	FUNTZ. ETA MANT.	IEB	1. MAILAKO MODULUA	IRAKASLEAK	IRAKASLE EZ DIREN LANGILEAK	FUNTZ. ETA MANT.	IEB	2. MAILAKO MODULUA	
OSTATUA ETA GARBITEGIA	1,364	73.256,55	1.168,48	5.716,70	701,85	80.843,58	55.645,94	1.168,48	5.343,30	567,35	62.725,07	143.568,65
ADMINISTRATIO-ZERBITZUAK	1,364	73.256,55	1.168,48	5.182,16	855,97	80.463,16	55.645,94	1.168,48	4.938,34	684,10	62.436,86	142.900,02
LOREZAINNTZA	1,364	73.256,55	1.168,48	6.219,98	470,70	81.115,71	55.645,94	1.168,48	6.123,85	392,23	63.330,50	144.446,21
ARTE GRAFIKOAK	1,364	73.256,55	1.168,48	6.137,48	1.858,59	82.421,10	55.645,94	1.168,48	5.861,71	1.443,67	64.119,80	146.540,90
MERKATARITZA-ZERBITZUAK	1,364	73.256,55	1.168,48	4.929,40	650,28	80.004,71	55.645,94	1.168,48	4.746,86	528,28	62.089,56	142.094,27
ERAIKUNTZA	1,364	73.256,55	1.168,48	8.236,28	1.058,85	83.720,16	55.645,94	1.168,48	7.651,35	837,80	65.303,57	149.023,73
BARNEALDEEN DEKORAZIOA	1,364	73.256,55	1.168,48	8.236,28	1.058,85	83.720,16	55.645,94	1.168,48	7.651,35	837,80	65.303,57	149.023,73
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	1,364	73.256,55	1.168,48	6.436,11	3.088,32	83.949,46	55.645,94	1.168,48	6.087,94	2.375,28	65.277,64	149.227,10
MEKANIZAZIOA	1,364	73.256,55	1.168,48	7.680,32	2.940,15	85.045,50	55.645,94	1.168,48	7.230,18	2.263,03	66.307,63	151.353,13
SOLDADURA, GALDARAGINTZA	1,364	73.256,55	1.168,48	7.668,16	2.255,50	84.348,69	55.645,94	1.168,48	7.220,96	1.744,35	65.779,73	150.128,42
SUKALDARITZA ETA JATETXE- ARLOA	1,364	73.256,55	1.168,48	6.975,08	3.183,58	84.583,69	55.645,94	1.168,48	6.496,26	2.447,44	65.758,12	150.341,81
OKINTZAKO ETA PASTELGINTZAKO JARDUERAK	1,364	73.256,55	1.168,48	6.942,96	1.375,90	82.743,89	55.645,94	1.168,48	6.471,93	1.077,99	64.364,34	147.108,23
ILE-APAINKETA	1,364	73.256,55	1.168,48	5.376,54	1.258,09	81.059,66	55.645,94	1.168,48	5.085,60	988,74	62.888,76	143.948,42
ESTETIKA	1,364	73.256,55	1.168,48	5.376,54	1.258,09	81.059,66	55.645,94	1.168,48	5.085,60	988,74	62.888,76	143.948,42
HARATEGIA, URDAITEGIA	1,364	73.256,55	1.168,48	5.835,87	919,32	81.180,22	55.645,94	1.168,48	5.633,22	732,09	63.179,73	144.359,95
ELIKAGAIEN MERKATARITZA	1,364	73.256,55	1.168,48	5.868,98	950,58	81.244,59	55.645,94	1.168,48	5.658,31	755,78	63.228,51	144.473,10
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	1,364	73.256,55	1.168,48	5.035,64	856,53	80.317,20	55.645,94	1.168,48	4.827,34	684,53	62.326,29	142.643,49
ITURGINTZA, BEROKUNTZA	1,364	73.256,55	1.168,48	7.442,60	1.472,98	83.340,61	55.645,94	1.168,48	7.050,08	1.151,54	65.016,04	148.356,65
HOZTEA	1,364	73.256,55	1.168,48	7.443,59	1.528,74	83.397,36	55.645,94	1.168,48	7.050,83	1.193,78	65.059,03	148.456,39
ALTZARIAK MUNTATZEA ETA INSTALATZEA	1,364	73.256,55	1.168,48	7.391,98	2.822,69	84.639,70	55.645,94	1.168,48	6.812,09	2.174,05	65.800,56	150.440,26
AROTZERIA INDUSTRIALA	1,364	73.256,55	1.168,48	8.219,69	3.057,42	85.702,14	55.645,94	1.168,48	7.638,79	2.351,87	66.805,08	152.507,22
KIROL-ONTZI ETA LAKETONTZIAK MANTENTZEA	1,364	73.256,55	1.168,48	7.634,64	1.285,24	83.344,91	55.645,94	1.168,48	7.195,57	1.009,31	65.019,30	148.364,21
PERTSONENTZAKO OINARRIZKO LAGUNTZA	1,364	73.256,55	1.168,48	6.151,92	1.372,20	81.949,15	55.645,94	1.168,48	5.673,01	1.075,18	63.562,61	145.511,76



LARRU-EHUNGINTZA	1,364	73.256,55	1.168,48	6.968,63	987,82	82.381,48	55.645,94	1.168,48	6.491,37	783,99	64.089,78	146.471,26
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA	1,364	73.256,55	1.168,48	8.917,09	2.405,95	85.748,07	55.645,94	1.168,48	8.526,47	1.858,33	67.199,22	152.947,29
KARROZERIA	1,364	73.256,55	1.168,48	8.917,09	2.405,95	85.748,07	55.645,94	1.168,48	8.526,47	1.858,33	67.199,22	152.947,29



9. Udalak sailari itzuliko dizkio eskuordetutako zerbitzua egiten inbertitu ez diren zenbatekoak.

Udalak betekizunetako, baldintzetako eta eskuordetza ematea ekarri zuten gainerako gorabeheretako edozein betetzen ez bada, jardunaren helburua aldatzen bada, edo ekintza justifikatzen ez bada, laguntzak emateko eskumena duen organoak dagokion prozedura abiatuko du. Prozedura hori, hala egokituz gero, jasotako kopuruak itzultzeko eta emandako kopurua ordaindu zenetik berandutze interesa galdatzeko erabakiarekin amaitu ahalko da. Prozedura tramitatzean, interesdunak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da betiere.

Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari eskuordetzen zaio diru-laguntza itzultzeko egoki diren espedienteak ebaztea.

LAUGARRENA: Ikastetxeen kudeaketa eta haren ikuskatzea.

1. Ikastetxearen zuzendaritza akademikoa eta kudeaketa, haren titular den udalari dagokio. Irakasleak eta irakasle ez diren langileak ikastetxearen titularraren mende izango dira soilik eta ondorio guztietarako.

2. Ikastetxeko gobernu-organoak Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeko V. tituluan ezarritakoak izango dira. Gobernuko organo pertsonabakarrak izendatzea eta kargutik kentzea udalari dagokio.

3. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ikuskatze- eta kontrol-jarduketa guztiei men egingo die udalak.

4. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak jarraibide tekniko orokorrak eman ahalko ditu, eta edonoiz eskatu ahalko du eskuordetzan eman duen zerbitzuaren udal-kudeaketari buruzko informazioa; orobat, ordezkariak bidal ditzake, eta ohartemandako hutsak zuzentzeko beharrezko eskaerak egin. Gidalerroak betetzen ez badira, eskatutako informazioak emateari uko egiten bazaio edo egindako eskakizunak betetzen ez badira, eskuordetza eman duen administrazioak

eskuordetza ezeztatu ahalko du, edo eskuordetutako eskumena berak gauzatu ahalko du udalaren ordeiz. Udalaren egintzen aurkako errekurtoa aurkeztu ahalko zaie administrazio eskuordetzaileko organo eskudunei.

BOSGARRENA: Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza.

Ikastetxeko irakasleak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak abian jarritako prestakuntza- eta hobekuntza-planetan sartu ahalko dira, baldin horretarako ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

SEIGARRENA: Indarraldia eta azkentzea.

1. Eskumen-eskuordetze honek 2015/2016 ikasturtearen hasieratik izango ditu eraginak, baldin aurrez beteta badago eskuordetzea eraginkorra izan dadin ezarri bigarren erabakian ezarri diren betekizuna eta baldintza etentzailea; eta bost ikasturtez iraungo du.

Indarraldia has dadin, udaleko idazkari edo kontu-hartzaileak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzara bidali beharko du erabakiaren egiaztagiri bat, non agertuko den udalak onartu duela erabaki honetan ezarritako eskumen-eskuordetzea.

2. Erabaki honen gai den eskumen-eskuordetzea azkendu egingo da ondorengo kausa hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Epea bukatzea.
- b) Eskuordetza eman duen administrazioak eskuordetza ezeztatzea, gidalerroak bete ez badira, eskatutako informazioak emateari uko egin bazaio edo egindako eskakizunak bete ez badira,
- c) Udalak berariaz uko egitea, Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 27.7 artikuluan jasotako kausaren bategatik.

3. Kasu horietako edozeinetan, alderdi biek bermatu beharko dute hezkuntza-eskaintza modu ordenatuan azkenduko dela, ikasle matrikulatuek epe arruntan barruan ikasketak burutzeko aukera izan dezaten.

ZAZIPGARRENA: Bost milioitik gorako gastua baimentzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 2014ko abenduaren 23ko 5/2014 Legeko 30.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, bost milioi eurotik gorako gastua baimentzen da. Zenbatekoa 35.630.563,43,00 euro da, eta EAEko udalek oinarritzko lanbide-heziketako heziketa-zikloak emateko eskumena eskuordetzea finantzatzeko da. Ondorengo xehakapena du, eta adierazitako aurrekontu-aplikazioen kargu izango da:

Lurraldea	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Bizkaia	1.543.260,62	4.922.930,29	5.021.388,91	5.121.816,69	5.224.253,02	5.328.738,08
Gipuzkoa	481.339,61	1.534.737,62	1.565.432,38	1.596.741,02	1.628.675,84	1.661.249,35
Guztira EAE	2.024.600,23	6.457.667,91	6.586.821,29	6.718.557,71	6.852.928,86	6.989.987,43



Aurrekontu-aplikazioak:

15.0.1.06.06.0600.2.422.01.42223.002/B

15.0.1.06.06.0600.3.422.01.42223.002/C

ERABAKIAREN ERANSKINA

UDALEN ZERRENDA, ziklo-talde baimenduak eta kopuruak

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
EZKAA	
BARAKALDO UDAL BHI	Arotzeriako eta Altzarigintzako oinarrizko lanbide titulua (Altzaria Muntatzea eta
	Ile Apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Elektrizitateko eta Elektronikako oinarrizko lanbide titulua
	Merkataritza Zerbitzuetako oinarrizko lanbide titulua
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide titulua
	Etxebizitzen Mantentzeko oinarrizko lanbide titulua (Iturgintza, Beroa)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-	
2015	6	169.279,40	5	109.667,60	278.947,00
2016	6	517.994,96	6	402.699,43	920.694,39
2017	6	528.354,86	6	410.753,42	939.108,28
2018	6	538.921,96	6	418.968,48	957.890,44
2019	6	549.700,40	6	427.347,85	977.048,25
2020	6	560.694,41	6	435.894,81	996.589,22



BASAURI

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
EZKANA	
BASAURI UDAL BHI	Etxebizitzaren Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Iturgintza, Beroa)
	Informatika eta Komunikazioetako oinarritzko lanbide titulua
	Ile Apainketako eta Estetikako oinarritzko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarritzko lanbide titulua (Soldadura,
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarritzko lanbide titulua
	Arte Grafikoetako oinarritzko lanbide titulua

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	4	112.778,25	4	87.677,49	200.455,75
2016	4	345.101,46	4	268.293,13	613.394,58
2017	4	352.003,48	4	273.658,99	625.662,48
2018	4	359.043,55	4	279.132,17	638.175,73
2019	4	366.224,43	4	284.714,82	650.939,24
2020	4	373.548,91	4	290.409,11	663.958,03

BERMEO

IKASTETXEA REN IZENA	PROFILA
EZKANA	
BERMEO UDAL BHI	Ibilgailuen Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Ibilgailuen Elektromekanika)
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarritzko lanbide titulua
	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarritzko lanbide titulua (Soldadura, Galdaragintza)
	GUZTIRA

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-	
2015	2	57.165,38	2	44.799,48	101.964,86
2016	2	174.926,06	2	137.086,41	312.012,47
2017	2	178.424,58	2	139.828,14	318.252,72
2018	2	181.993,08	2	142.624,70	324.617,78
2019	2	185.632,94	2	145.477,19	331.110,13
2020	2	189.345,60	2	148.386,74	337.732,33



DURANGO

IKASTETXEA REN IZENA	PROFILA
BIZKAIA	
DURANGO UDAL BHI	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arako oinarritzko lanbide titulua
	Lorezaintzako oinarritzko lanbide titulua
	Arotzeriako eta Altzarigintzako oinarritzko lanbide titulua (Altzaria Muntatzea eta Etxebizitzaren Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Iturgintza, Beroa)
	Eraikinak Eraberritu eta Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Barnealdeko Dekorazioa)
	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarritzko lanbide titulua (Soldadura, Galdaragintza)
	Elektrizitateko eta Elektronikako oinarritzko lanbide titulua

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	4	112.852,93	4	87.734,08	200.587,01
2016	4	86.332,49	4	268.466,28	613.796,26
2017	4	88.059,14	4	273.835,61	626.072,19
2018	4	89.820,33	4	279.312,32	638.593,63
2019	4	91.616,73	4	284.898,57	651.365,50
2020	4	93.449,07	4	290.596,54	664.392,81

ERANDIO

IKASTET XEAREN IZENA	PROFILA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU- LAGUNTZA,
		OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-	
BIZKAIA						
ERANDIO UDAL BHI	Okintza eta Pastelgintzako oinarritzko lanbide titulua	1	27.581,30	1	21.454,78	49.036,08
	GUZTIRA	1	27.581,30	1	21.454,78	49.036,08

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	1	27.581,30	1	21.454,78	49.036,08
2016	1	84.398,77	1	65.651,63	150.050,39
2017	1	86.086,74	1	66.964,66	153.051,40
2018	1	87.808,48	1	68.303,95	156.112,43
2019	1	89.564,65	1	69.670,03	159.234,68
2020	1	91.355,94	1	71.063,43	162.419,37



ERMUA

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
EZKAA	
ERMUA UDAL BHI	Ibilgailuen Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Ibilgailuen Elektromekanika)
	Ile Apainketako eta Estetikako oinarritzko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarritzko lanbide titulua (Mekanizazioa)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	3	85.748,07	3	67.199,22	152.947,29
2016	3	262.389,09	3	205.629,61	468.018,71
2017	3	267.636,88	3	209.742,21	477.379,08
2018	3	272.989,61	3	213.937,05	486.926,66
2019	3	278.449,41	3	218.215,79	496.665,20
2020	3	284.018,39	3	222.580,11	506.598,50

GERNIKA-LUMO

IKASTETXEA REN IZENA	PROFILA
EZKAA	
GERNIKA-LUMO UDAL BHI	Ile Apainketako eta Estetikako oinarritzko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Arotzeriako eta Altzarigintzako oinarritzko lanbide titulua (Altzaria Muntatzea eta Instalatzea)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-	
2015	2	56.426,47	1	21.933,52	78.359,99
2016	2	172.664,99	2	134.233,14	306.898,13
2017	2	176.118,29	2	136.917,81	313.036,09
2018	2	179.640,65	2	139.656,16	319.296,81
2019	2	183.233,47	2	142.449,28	325.682,75
2020	2	186.898,14	2	145.298,27	332.196,41



MUNGIA

IKASTETXEA REN IZENA	PROFILA
EZKAA	
MUNGIA UDAL BHI	Ibilgailuen Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Ibilgailuen Elektromekanika)
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarritzko lanbide titulua
	Ile Apainketako eta Estetikako oinarritzko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Etxebizitzaren Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Iturgintza, Beroa)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	2	57.165,38	2	44.799,48	101.964,86
2016	2	174.926,06	2	137.086,41	312.012,47
2017	2	178.424,58	2	139.828,14	318.252,72
2018	2	181.993,08	2	142.624,70	324.617,78
2019	2	185.632,94	2	145.477,19	331.110,13
2020	2	189.345,60	2	148.386,74	337.732,33

POTUGALETE

IKASTETXEA REN IZENA	PROFILA
EZKAA	
PORTUGALETE UDAL BHI	Ile Apainketako eta Estetikako oinarritzko lanbide titulua (Estetika)
	Ibilgailuen Mantentzeko oinarritzko lanbide titulua (Ibilgailuen Elektromekanika)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	2	57.165,38	2	44.799,48	101.964,86
2016	2	174.926,06	2	137.086,41	312.012,47
2017	2	178.424,58	2	139.828,14	318.252,72
2018	2	181.993,08	2	142.624,70	324.617,78
2019	2	185.632,94	2	145.477,19	331.110,13
2020	2	189.345,60	2	148.386,74	337.732,33



SANTURTZI

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
EZKAA	
SANTURTZI UDAL BHI	Ile Apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Laketontzien Mantentzeko oinarrizko lanbide titulua
	Etxebizitzaren Mantentzeko oinarrizko lanbide titulua (Iturgintza, Beroa)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	3	83.344,91	2	43.346,20	126.691,11
2016	3	255.035,42	3	198.959,06	453.994,48
2017	3	260.136,13	3	202.938,24	463.074,37
2018	3	265.338,86	3	206.997,00	472.335,86
2019	3	270.645,63	3	211.136,94	481.782,58
2020	3	276.058,55	3	215.359,68	491.418,23

SESTAO

IKASTETXEA REN IZENA	PROFILA
EZKAA	
SESTAO UDAL BHI	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarrizko lanbide titulua (Soldadura, Galdaragintza)
	Ile Apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide titulua

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-laguntza	2º OLH	Diru-laguntza	
2015	3	84.583,69	3	65.758,12	150.341,81
2016	3	258.826,09	3	201.219,85	460.045,94
2017	3	264.002,61	3	205.244,24	469.246,86
2018	3	269.282,67	3	209.349,13	478.631,79
2019	3	274.668,32	3	213.536,11	488.204,43
2020	3	280.161,69	3	217.806,83	497.968,52



ANDOAIN

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
GRUZKOA	
ANDOAIN UDAL BHI	Ibilgailuen Mantentzeko oinarrizko lanbide titulua (Karrozeria)
	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarrizko lanbide titulua (Soldadura, Galdaragintza)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU- LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	2	57.165,38	1	22.399,74	79.565,12
2016	2	174.926,06	2	137.086,41	312.012,47
2017	2	178.424,58	2	139.828,14	318.252,72
2018	2	181.993,08	2	142.624,70	324.617,78
2019	2	185.632,94	2	145.477,19	331.110,13
2020	2	189.345,60	2	148.386,74	337.732,33

DEBA BEHERA EIBAR

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
GRUZKOA	
DEBA BEHERA (EIBAR) UDAL BHI	Arotzeriako eta Altzarigintzako oinarrizko lanbide titulua (Altzaria Muntatzea eta Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide titulua)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU- LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	2	56.426,47	2	43.867,04	100.293,51
2016	2	165.960,20	2	134.233,14	300.193,34
2017	2	169.279,40	2	136.917,81	306.197,21
2018	2	172.664,99	2	139.656,16	312.321,15
2019	2	176.118,29	2	142.449,28	318.567,57
2020	2	179.640,65	2	145.298,27	324.938,92



HERNANI

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
GPUZKOA	
HERNANI UDAL BHI	Ibilgailuen Mantentzeko oinarrizko lanbide titulua (Ibilgailuen Elektromekanika)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	1	28.582,69	1	22.399,74	50.982,43
2016	1	87.463,03	1	68.543,20	156.006,24
2017	1	89.212,29	1	69.914,07	159.126,36
2018	1	90.996,54	1	71.312,35	162.308,89
2019	1	92.816,47	1	72.738,60	165.555,07
2020	1	94.672,80	1	74.193,37	168.866,17

PASAIA

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
GPUZKOA	
PASAIA UDAL BHI	Etxebizitzaren Mantentzeko oinarrizko lanbide titulua (Iturgintza, Beroa)
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide titulua

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	2	56.389,13	2	43.838,75	100.227,87
2016	2	172.550,73	2	134.146,56	306.697,29
2017	2	176.001,74	2	136.829,50	312.831,24
2018	2	179.521,78	2	139.566,09	319.087,86
2019	2	183.112,21	2	142.357,41	325.469,62
2020	2	186.774,46	2	145.204,56	331.979,01



ZUMAIA

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
GPUZKOA	
ZUMAIA-UROLA KOSTA UDAL BHI	Metalezko Elementuen Fabrikazioko oinarrizko lanbide titulua (Soldadura, Galdaragintza)

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-	OLH 2	Diru-	
2015	1	28.116,23	1	21.926,58	50.042,81
2016	1	86.035,66	1	67.095,32	153.130,99
2017	1	87.756,38	1	68.437,23	156.193,61
2018	1	89.511,50	1	69.805,98	159.317,48
2019	1	91.301,73	1	71.202,10	162.503,83
2020	1	93.127,77	1	72.626,14	165.753,91

USURBIL

IKASTETXEAREN IZENA	PROFILA
GPUZKOA	
USURBIL UDAL BHI	Ile Apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide titulua (Ile Apainketa)
	Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide titulua

EKITALDIA	TALDE-KOP.		TALDE-KOP.		DIRU-LAGUNTZA,
	OLH 1	Diru-laguntza	OLH 2	Diru-laguntza	
2015	2	56.389,13	2	43.838,75	100.227,87
2016	2	172.550,73	2	134.146,56	306.697,29
2017	2	176.001,74	2	136.829,50	312.831,24
2018	2	179.521,78	2	139.566,09	319.087,86
2019	2	183.112,21	2	142.357,41	325.469,62
2020	2	186.774,46	2	145.204,56	331.979,01

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau sinatzen dut, Gasteizen, 2015eko uztailaren 28an. Eta aditzera ematen dut erabaki hau jasotzen duen akta Jaurlaritzaren hurrengo Gobernu Kontseiluan aurkeztuko dela, onartua izan dadin.